

xxxxx FORU DEKRETUA, xxxxxxxxkoa, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako jantokiak arautzen dituen

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoak, 47. artikuluan, ezartzen du Nafarroako Foru Komunitateari dagokiola hezkuntza arautzeko eta administratzeko eskumen osoa, maila, gradu, modalitate eta espezialitate guztietan, Konstituzioaren eta Estatuaren eskumen diren lege organiko guztien manuetan ezarritakoaren arabera.

Abuztuaren 31ko 1070/1990 Errege Dekretuaren bidez unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako eginkizunak eta zerbitzuak eskualdatu zitzaizkion Nafarroako Foru Komunitateari, eta hortaz Nafarroak bere gain hartu zituen unibertsitateaz kanpoko ikastetxe askoren funtzionamendua kudeatzeko erantzukizunak. Horren karira, uztailaren 24ko 246/1991 Foru Dekretua onetsi zen, Nafarroako unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako eskola jantokiak derrigorrezko hezkuntza mailetan arautzeko, baita ere Hezkuntza eta Kulturako kontseilariaren maiatzaren 11ko 186/1993 Foru Agindua, dekretu hori garatzeko.

Foru dekretu horrek indarrean jarraitzen du hogeita hamar urte geroago, eta oso baliagarria izan da eskola jantokiak kudeatzeko. Hala ere, oso komenigarria da foru dekretu berri bat onestea ikastetxe publikoetako eskola jantokiaren antolaketa, funtzionamendua eta kudeaketa arautzeko, egungo arau esparrura eta egungo gizartearen beharretara eguneratu eta egokitu behar baita.

Gizarte modernoetan, hezkuntza sistemak funtsezko zeregina bete behar du pertsonen prestakuntzan. Oso garrantzitsuak dira, halaber, hezkuntza ekintza bera egiteko bitartekoak eta inguruabarrak. Hori dela eta, maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak nabarmentzen du, beste helburu batzuen artean, oztopo ekonomiko, sozial eta bestelakoak ezabatu behar direla hezkuntza eskubidea behar bezala garatzeko.

Nafarroako gizartean gero eta ozenago eskatzen zaie administrazio publikoei hezkuntzarako sarbidea erraz dezaten. Horretarako, bada, neurri batzuk ezarri beharko dituzte, lagunduko dutenak lana eta familia bateragarri egiten, eta bide emanen dutenak gizonak eta emakumeak lan munduan baldintza berberetan sartzeko. Ildo horretan, agerikoa da eskola jantokiak ematen duen zerbitzuak lagundu egiten diela familiei lan bizitza eta seme-alaben zaintza egokia uztartzen.

Gizartean eta hezkuntza sisteman izan diren aldaketak direla eta, komeni da eskola jantokiaren zerbitzua arautzea, halako moduz non, batetik, bermatuko baita hezkuntzaren osagarri den zerbitzu hau ematea bizi diren herritik kanpo derrigorrez ikasi behar duten ikasleei, eta, bestetik, aukera emanen baitzaie ikastetxeei zerbitzu hau eskaintzeko hala nahi duten gainerako ikasleei. Eskola jantokiaren zerbitzua hezkuntzaren arloan txertatuta dago, eta alderdi hori nahitaez hartu behar da kontuan, hain zuzen, zerbitzua aprobetxatu eta indartzeko. Ikasleak jantoki zerbitzuan ematen duen denborak onurak ekarri behar dizkie ikasleei zein familiei. Ikasleek eskubidea dute kalitatezko elikadura izateko, eta, orobat, tarte

hori aprobetxatu eta prestakuntza integrala jasotzeko, hezkuntza jardueren bitartez, zenbait gairi buruz (elikadura ohiturak, gizarte ohiturak, ohitura osasuntsuak...), hori guztia errespetuan eta bizikidetzan oinarritutako giroa lagun.

Adierazitako helburuak kontuan hartuta eta ikastetxeen autonomia errespetatuz, bilatzen den ereduari sukaldia eskolan bertan dago, eta sasoiko eta hurbileko produktu freskoak erabiltzen dira.

Bestalde, laguntzak zabaldu dira despopulazte arrisku handi eta larrian dauden herrietan bizi eta herri horietako ikastetxeetan ikasten dutenengana.

Gainera, familia kontziliazioa errazteko eta Nafarroako Arartekoak gai horri buruz egindako gomendioei kasu egiteko, azken xedapen bat gehitu da Hezkuntzako kontseilariaren maiatzaren 11ko 35/2022 Foru Aginduaren 12. artikulua aldatzeko (foru agindu horren bidez arautzen dira Nafarroako Foru Komunitatean eskola garraioaren zerbitzuaren antolaketa eta haren funtzionamendua, eta jantokirako banakako laguntzak), zaintza partekatuko egoeretan eskola garraio kolektibo antolaturako edo laguntza indibidualizaturako eskubidea zabaltze aldera, zehazki adingabeak bizilekua aldatzen badu guraso bakoitzarekin dagoen aldiaren arabera.

Foru dekretuak hiru titulu, hamaika kapitulu, bost xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bakar bat eta hiru azken xedapen ditu.

I. tituluak eskualdeko jantokietarako eta jantoki arruntetarako xedapen komunak jasotzen ditu. I. kapituluan (“Xedapen orokorrak”), honako hauek jasotzen dira: xedea eta aplikazio eremua, eskola jantokiak baimentzea eta ikuskatzea, jantokien sailkapena eta eskola jantokiko zerbitzuaren urteko plana. II. kapituluan (“Eskola jantokirako laguntzak”), eskola jantokirako laguntzen onuradunak eta laguntza horien ordainketa zehazten dira. III. kapituluan (“Segurtasuna eta higiena”), eskola jantokietako segurtasun eta higiene betebeharrak ezartzen dira, bai eta eskola jantokiko zerbitzuaren kontrola ere. Kontrol hori Osasun Departamentuak eta Hezkuntza Departamentuak egingen dute, bakoitzak bere eskumenen esparruan.

II. tituluak “Eskualdeko eskola jantokiak” du izenburu. I. kapituluan (“Eskualdeko eskola jantokien antolaketa eta funtzionamendua”), eskualdeko eskola jantokiko zerbitzuaren kudeaketa arautzen da. II. kapituluan (“Eskualdeko eskola jantokiko zerbitzuaren erabilera”), plazak esleitzeko irizpideak eta menuen tipologia ezartzen dira. III. kapituluan (“Eskumenak eta betebeharrak eskualdeko jantokietan”), eskola kontseiluaren, ikastetxeko zuzendaritzaren, langile arduradunen, langile administratzaileen eta arretako langileen eginkizunak zehazten dira. Halaber, langile horien ordainsari araubidea eta ikuskapena aipatzen dira. IV. kapituluan (“Kudeaketa ekonomikoa”), eskualdeko jantokien finantzaketa, zerbitzuaren kuotak, familien ordainketak eta ez-ordaintzeak eta zerbitzuaren kontabilitatea jasotzen dira.

III. tituluak “Eskola jantoki arruntak” du izenburu. I. kapituluan (“Eskola jantoki arrunten antolaketa eta funtzionamendua”), zerbitzuaren kudeaketa arautzen da. II. kapituluan (“Eskola jantoki arruntak baimentzea”), baimena emateko, funtsezko aldaketak egiteko eta

baimena errebokatzeko prozedura jasotzen da. Gainera, menuen tipologia aipatzen da. III. kapituluan (“Eskumenak eta betebeharrak jantoki arruntetan”), eskola kontseiluaren, guraso elkartearen, ikastetxeko zuzendaritzaren eta arretako langileen eginkizunak zehazten dira. IV. kapituluan (“Kudeaketa ekonomikoa”), finantzaketa araubidea, zerbitzuaren kuotak eta familien ordainketak eta ez-ordaintzeak ezartzen dira.

Foru dekretuak bost xedapen gehigarri ditu gai hauei buruz: Hezkuntza Departamentuari atxikitako haur eskolen kudeaketa arautzea, Hezkuntza Departamentuaren eta eskola jantoki arrunten arteko lankidetzak, eskualdeko jantokien zerbitzuaren urteko plana, toki erakundeekiko hitzarmenak eta eskola jantokiko zerbitzua salbuespen gisa etetea.

Xedapen iragankor bakarrak Nafarroako Gobernuaren titulartasuneko jantoki arrunten banku kontuak ezereztea agintzen du.

Xedapen indargabetzaile bakarra sartu da orain arte aplikatzen zen araudia indargabetzeko.

Foru dekretuaren amaieran hiru azken xedapen daude. Lehenengoak Hezkuntzako kontseilariaren maiatzaren 11ko 35/2022 Foru Aginduaren titulua eta 12. artikulua aldatzen ditu (foru agindu horren bidez arautzen dira Nafarroako Foru Komunitatean eskola garraioaren zerbitzuaren antolaketa eta haren funtzionamendua, eta eskola jantokirako banakako laguntzak). Bigarrenak foru dekretua erregelamendu bidez garatzeko ahalmenak aipatzen ditu, eta hirugarrenak, dekretua indarrean sartuko den eguna.

Horiek horrela, Nafarroako Eskola Kontseiluak txostena egin ondoren, Hezkuntzako kontseilariak proposaturik eta Nafarroako Gobernuak bi mila eta hogeita lauko _____an egindako bilkuran hartutako Erabakiarekin bat, dekretatzen dut:

I. TITULUA: Xedapen komunak

I. KAPITULUA: Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua.

1. Foru dekretu honen xedea da eskola jantokiko zerbitzu osagarriaren antolaketa eta funtzionamendua arautzea.

2. Foru dekretu hau aplikatuko zaie Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Hezkuntza Departamentuaren mendeko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoei, zehazki Haur Hezkuntzako bigarren zikloko eta Lehen Hezkuntzako irakaskuntzak ematen dituztenei, bai eta Hezkuntza Berezikoko ikastetxe publikoei ere, baldin eta eskola jantokiko zerbitzu osagarria ematen badute.

Halaber, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ematen duten ikastetxe publikoei ere aplikatuko zaie baldin eta, antolaketa arrazoiak direla-eta, eskola garraioa partekatzen badute Haur Hezkuntzako bigarren zikloa eta Lehen Hezkuntza ematen duten ikastetxeekin.

2. artikulua. Eskola jantokiak baimentzea eta ikuskatzea.

1. Hezkuntza Departamentuak baimena ematen ahalko du indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskola jantokiak irekitzeko eta jardunean jartzeko, ofizioz edo ikastetxeko eskola kontseiluak eskatuta, eta, hala badagokie, hezkuntza ikuskaritzaren eta hezkuntza azpiegituren arloan eskumena duten zerbitzuek txostena egin ondoren.

2. Hezkuntza Departamentuak eskola jantokiaren funtzionamendua ikuskatuko du, eskola jantokietan, hezkuntza azpiegiturretan eta hezkuntza ikuskaritzan eskumena duten zerbitzuen bitartez, bakoitzak bere eskumeneko arloetan, eta jantokiaren antolamenduari eta kudeaketari buruzko aholkuak ematen ahalko ditu.

3. artikulua. Eskola jantokiaren sailkapena.

1. Eskola jantokiak, ikasleen eskolatze eremuaren arabera, bi klasetan sailkatzen dira: eskualdeko jantokiak edo jantoki arruntak.

2. Eskualdeko jantokiak dira Hezkuntza Departamentuak hala izendatzen dituenak, eskola jantokiaren arloan eskumena duen zuzendaritza nagusiaren ebazpen bidez, ikastetxeetan sortzen diren behar zehatz batzuei erantzuteko, hain zuzen ere eskolara joateko Hezkuntza Departamentuak antolatutako garraioa erabili behar duten ikasleak daudenean. Hezkuntza Departamentuak antolatuko ditu, ikastetxeetako eskola kontseiluekin eta zuzendaritzekin lankidetzan.

3. Foru dekretu honetan ezarritako ondorioetarako, Hezkuntza Departamentuak eskualdeko jantokitzat ematen ahalko ditu aurreko paragrafoan jasotako ezaugarriak betetzen ez dituztenak, baldin eta ikasle guztiek edo gehienek honako ezaugarri berezietakoren bat badute:

- a) Aukeratutako ikastetxean plazarik ez izateagatik inguruko batera bideratu diren ikasleak.
- b) Aukeratutako hizkuntza ereduagatik beste herri batean ikasi behar dutenak.
- c) Hezkuntza Bereziko ikasgela espezifikotara bideratutako ikasleak.
- d) Egoera sozioekonomiko ahulean dauden ikasleak.

4. Jantoki arruntak dira Hezkuntza Departamentuak baimendutako gainerako eskola jantokiak, aurreko apartatuetan ezarritako baldintzak betetzen ez dituztenak.

4. artikulua. Eskola jantokiko zerbitzuaren urteko plana.

1. Jantoki zerbitzua ematen den ikastetxeetan, eskola jantokiko zerbitzuaren urteko plana egonen da, eskola kontseiluak onetsia, eta urteko programazio orokorrean txertatuko da; orobat, ikasturte bukaerako memorian ebaluatuko da eta, hala badagokio, hurrengo ikasturteetarako hobekuntzak proposatuko dira.

2. Eskola jantokiko zerbitzuaren urteko planak, gutxienez, honako atal hauek izan beharko ditu:

- a) Helburuak
- b) Antolaketa eta funtzionamendua
- c) Ikastetxearen bizikidetzaren plana jantokiko denborara egokitzea
- d) Jantokia hezkuntza ingurune gisa sustatzeko jarduerak

3. Planaren helburuei dagokienez, eta eskola jantokia hezkuntza prozesuan integratzeko,

honako helburu hauek bete beharko dira, gutxienez:

- a) Osasunerako, higienerako eta nutriziorako hezkuntza sustatzea.
- b) Elikadura ohitura osasungarriak eta jasangarriak sustatzea.
- c) Ikasleen portaera egokia sustatzea jan bitartean, baita jan aurretik eta ondotik ere, eta aho-hortzen higiena zaintzea.
- d) Ikasleen arteko lankidetzak, elkartasuna, inklusioa, hezkidetzak eta bizikidetzak bultzatzea.
- e) Ikasleen garapen psikologikoa, soziala eta afektiboa bultzatzea, bai eta ohitura soziokulturalak sustatzea ere.

4. Eskola jantokiko zerbitzuaren urteko plana ikastetxe bakoitzaren errealitatera egokitu beharko da.

II. KAPITULUA: Eskola jantokirako laguntzak

5. artikulua Eskola jantokirako laguntzen ikasle onuradunak.

1. Honako hauek izanen dira eskola jantokirako laguntzaren onuradunak:
 - a) Eskola garraiorako eskubidea duten ikasleak, eskola garraioaren antolaketa eta funtzionamendua arautzen duen araudiaren arabera.
 - b) Haur Hezkuntzako bigarren zikloa edo Lehen Hezkuntza egiten ari diren eta egoera ekonomiko ahulean dauden ikasleak.
 - c) Despopulazate arrisku handi eta larrian dauden herrietan bizi eta herri horietako ikastetxeetan ikasten duten ikasleak, toki administrazioaren eta despopulazioaren arloetan eskumena duen zuzendaritza nagusiak horri buruz ezarritakoaren arabera.
2. Salbuespen gisa, behar bezala justifikatutako inguruabarrak gertatzen direnean, ikastetxeak eskatuta eta eskola jantokien arloan eskumena duen zuzendaritza nagusiaren ebazpen bidez, jantokirako laguntzak ematen ahalko zaizkie aurreko apartatuan ezarritako egoeretan ez dauden ikasleei.
3. Laguntza horien zenbatekoa urtero zehaztuko da, eskola jantokien arloan eskumena duen zuzendaritza nagusiaren ebazpen bidez.

6. artikulua. Eskola jantokirako laguntzak ordaintzea.

1. Eskola jantokirako laguntzak hiru hilean behin ordainduko dira, ikastetxeak eskola jantokien arloan eskumena duen zerbitzuari jantokiko laguntza eskatzen duten ikasleen zerrenda jakinarazi ondoren, eskaeraren onuradun mota aurreko artikulua arabera zehaztuta.

Jantoki arrunten kasuan, ordainketak guraso elkarteak emandako kontuan egiten ahalko dira hiruhileko bakoitza amaitu baino lehen, eta ondoren hurrengo ordainketekin konpentsatuko dira.

2. Horretarako, hiruhileko bakoitza amaitutakoan, ikastetxeek hiruhileko horretako zerbitzu egunetan jantokia erabili duten ikasleen zerrenda igorriko dute.

3. Eskola kontseilu edo guraso elkarte bakoitzak zainduko du emandako laguntzak xede dituzten ikasleei soilik emanen zaizkiela.

III. KAPITULUA: Segurtasuna eta higiea

7. artikulua. Segurtasun eta higiea betebeharrak eskola jantokietan.

1. Ikasturte bakoitzean, jantokia martxan jarri aurretik, toki erakundeek bermatuko dute jantoki zerbitzurako lokalen garbiketa, desinfekzioa eta izurrien kontrola, bai eta sare elektrikoko instalazioen eta ur eta gas harguneen funtzionamendu egokia ere.
2. Jantoki zerbitzua ematen duenak betebeharrak izan behar dituzte:
 - a) Segurtasun eta higiearen arloan indarrean dagoen legerian ezarritako eskakizunak bete behar ditu.
 - b) Sukaldea, jangela, biltegiak eta jantoki zerbitzurako gainerako espazioak garbitu eta desinfektatu behar ditu, baita ekipoak, lanabesak eta tresneria ere.
 - c) Biltegiatutako elikagaien kontrola bermatuko du.
 - d) Trazabilitate sistemak ezarri behar ditu, bermatzeko giza osasunerako arriskuren bat badago elikagai bati lotuta, argi eta garbi mugatzen ahalko dela produktua eta berehala erretiratzeko ahalko dela.
 - e) Sortutako hondakinak kudeatu behar ditu.
 - f) Laginak izan behar ditu, egunero prestatzen eta ematen diren janarien adierazgarriak, azterketa epidemiologikoak egin ahal izateko.

8. artikulua. Eskola jantokiko zerbitzuaren kontrola.

1. Osasunaren arloan eskumena duen departamentuak:
 - a) Jantokien osasun egoera kontrolatu behar du, toki erakundeek arlo horretan dituzten eskumenak alde batera utzi gabe.
 - b) Eskola jantoki guztien kontrolak egin behar ditu erregulartasunez, arriskuaren arabera eta osasun arloan eskumena duten agintariek zehaztutako maiztasunarekin.
2. Ikasturtearen hasieran, Hezkuntza Departamentuak Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuari eman behar dio baimendutako jantokien zerrenda, ikuskapen bisiten liburua izan dezaten. Horretarako, baimendutako jantoki guztiek ikuskapen bisiten liburua izan behar dute.
3. Hezkuntza Departamentuak kontrol espezifikoak eta jarraipen kontrolak egiten ahalko ditu beharrezkotzat ematen duen aldizkakotasunarekin, eskola jantokietara bisita programatuak edo programatu gabeak eginez, jantoki zerbitzuaren kalitate orokorra ziurtatzeko, honako irismen honekin:
 - a) Kalitate objektiboa: menuen kontrol higieniko-sanitarioak eta ezaugarri dietetiko eta nutrizionalen kontrolak.
 - b) Kalitate subjektiboa: menuen ezaugarri organoleptikoen kontrolak eta menuen arrakasta.

II. TITULUA: Eskualdeko eskola jantokiak

I. KAPITULUA: Eskualdeko eskola jantokien antolaketa eta funtzionamendua

9. artikulua. Eskualdeko eskola jantokien zerbitzua kudeatzea

1. Eskola jantokia zerbitzu osagarria da, ikasturteko eskola egun guztietan eman beharrekoa. Honako hauek barne hartzen ditu:
 - a) Janari zerbitzua, menuak programatu, prestatu eta banatuz, eta baldintza eta kontrol higieniko-sanitarioak betetzen direla bermatzen duten jarduketa guztiak eginez.
 - b) Hezkuntza zaintza eta arreta, bai jan bitartean, bai jan aurretik eta ondotik, osasuna, elikadura ohiturak eta gizarte trebetasunak sustatuz, bai eta kulturarekin, kirolarekin eta aisiarekin lotutako ohiturak ere.
2. Jantoki zerbitzua modalitate hauetakoren baten bidez emanen da:
 - a) Ikastetxean bertan prestatutako janariak banatzea.
 - b) Sukalde zentral batean edo hurbileko ikastetxe batean prestatu ondoren ikastetxera lerro beroan garraiatutako janariak banatzea.
 - c) Sukalde zentral batean edo hurbileko ikastetxe batean prestatu ondoren ikastetxera lerro hotzean garraiatutako janariak banatzea.
3. Eskola jantokiko zerbitzua, oro har, zeharkako kudeaketaren bidez emanen da, enpresa espezializatuen eskutik.
4. Hezkuntza Departamentuak esleituko du eskola jantokiko zerbitzua, Kontratu Publikoari buruzko Foru Legearekin bat etorritik.
5. Hezkuntza Departamentuak hitzarmenak egiten ahalko ditu toki erakundeekin, zehazki eskola jantoki zerbitzuaren kudeaketa bere gain hartu nahi dutenekin.
6. Salbuespen gisa, bazkaltiar gutxi daudenean edo beste inguruabar batzuek hala gomendatzen dutenean, erabaki ahalko da zerbitzu hori jendearentzat irekita dauden beste establezimendu batzuetan, entitateetan edo erakundeetan ematea, zerbitzua behar bezala ematen dela bermatzen badute.

II. KAPITULUA: Eskualdeko eskola jantokiko zerbitzuaren erabilera

10. artikulua. Plazak esleitzeko irizpideak.

Ikastetxeko eskola kontseiluak honako lehentasun hurrenkeraren arabera esleituko ditu jantokiko plazak:

1. Garraiatutako ikasleak.
2. Eskola kontseiluak onartutako irizpideen arabera lehentasuna duten ikasleak; horietan, arreta berezia emanen zaie familiaren egoera ekonomikoari eta 3.3 artikuluan zehaztutako gainerako inguruabarrei.
3. Laguntzaren onuradun ez diren ikasleak, ama genero indarkeriaren biktima bada.
4. Laguntzaren onuradun ez diren ikasleak, guraso bakarreko familiakoak.
5. Laguntzaren onuradun ez diren ikasleak, bi legezko tutoreek lan egiten badute eta lan ordutegiak eta eskola ordutegia bateraezina badira. Atal honetan, familia ugarietako ikasleek izanen dute lehentasuna.
6. Etxera joateko zailtasun handiak frogatzen dituzten ikasleak.
7. Ikastetxeko gainerako ikasleak.

11. artikulua. Eskualdeko jantokietako menuen tipologia.

1. Askotariko menu nutritiboa eskainiko da, adin talde bakoitzaren beharretara egokitua; erabiltzaile guztiek menu bera izanen dute, salbuespenezko eta justifikatutako arrazoiengatik bestelako bat behar dutenek izan ezik. Giza Nutrizioan eta Dietetikan prestakuntza egiaztatua duten profesionalak diseinatu eta gainbegiratuko dute menua, elikadura osasuntsuagoa, jasangarriagoa eta inklusiboagoa sustatuz eta nutrizio kalitatea bultzatuz eta kontrolatuz, haurtzaroan eta nerabezeroan gehiegizko pisua eta obesitatea prebenitu eta kontrolatzeko.

2. Elikagai jakin batzuei alergia edo intolerantzia dieten ikasleen kasuan, edo elikadura espezifikoa behar duten gaixotasun edo nahasmendu somatikoak dituzten ikasleen kasuan, zerbitzuaren adjudikaziodunak patologiekin bateragarriak diren menu espezifikoak eman beharko ditu, betiere jantokiko arduradunaren aurrean egiaztatzen badira dagokion ziurtagiri mediko ofizialaren bidez.

Salbuespenez, menu espezifiko horiek eskaini ezin badira, ikasleek janaria eramaten ahalko dute etxetik, eta kasu horretan janaria kontserbatzeko eta berotzeko bitartekoak emanen zaizkie.

3. Menu bereziak eskaini ahalko zaizkie erlijio, kultura eta etika arrazoiak direla-eta elikadura espezifikoa behar duten ikasleei, eskola jantokian gizarte inklusioa sustatzeko.

III. KAPITULUA: Eskumenak eta betebeharrak eskualdeko jantokietan

12. artikulua. Eskola kontseilua.

Hauek dira ikastetxeko eskola kontseiluaren eginkizunak:

- a) Eskola jantokiaren antolaketa eta funtzionamendurako jarraibideak zehaztea, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan eta foru dekretu honetan xedatutakoaren arabera.
- b) Eskola jantokiko aurrekontuak prestatzea, ordaindu beharreko kuotak eta urteko balantzea onestea, eta jantokiaren funtzionamendurako funtsak behar bezala administratzeko jarraibideak ematea.
- c) Jantokiko arduraduna, jantokiko administratzailea eta irakasle zaintzaile boluntarioak izendatzea.
- d) Eskola jantokiko zerbitzuaren urteko plana onestea eta ebaluatzea, ikastetxearen urteko programazio orokorraren barruan.
- e) Hezkuntza administrazioak ezartzen duen beste edozein.

13. artikulua. Ikastetxearen zuzendaritza.

Hauek dira ikastetxeko zuzendaritzaren eginkizunak:

- a) Jantokiaren antolaketa eta funtzionamendua gainbegiratzea.
- b) Jantoki zerbitzua ematen den bitartean ikastetxeko bizikidetzara araudia betetzen dela gainbegiratzea, eta araudian ezarritako neurriak aplikatzea.
- c) Ikasleei ematen zaien hezkuntza arretaren kalitatea zaintzea.

- d) Jantokiko arduradunarekin batera, eskola jantokiko zerbitzuaren urteko plana egitea, ikastetxearen urteko programazio orokorraren barruan.
- e) Ikasturte hasieran, eskola jantokiko zerbitzuaren urteko planaren eta horren arauen berri ematea familiei.
- f) Jantokian lan egiten duten ikastetxeko irakasleen buru izatea.
- g) Kontabilitatearen kudeaketa kontrolatzea.
- h) Hezkuntza administrazioak ezartzen duen beste edozein.

14. artikulua. Eskualdeko eskola jantokietako arduradunak.

1. Eskola kontseiluak ikastetxeko irakasleen artean jantokiaz arduratuko den pertsona bat izendatuko du. Pertsona hori ikasturte baterako aukeratuko da, eta aurreko ikasturte batean aukeratutako pertsona bera izan daiteke.

Boluntariorik ez badago, eskola kontseiluak berak aukeratuko du arduraduna.

2. Arduradunak bazkalorduan eta bazkaldu aurreko eta ondoko denbora librean emanen ditu zerbitzuak.

3. Hauek dira jantokiko arduradunaren eginkizunak:

- a) Jantoki zerbitzua antolatzea.
- b) Zuzendaritza taldearekin batera, eskola jantokiko zerbitzuaren urteko plana egitea, ikastetxearen urteko programazio orokorraren barruan.
- c) Eskola jantokiko zerbitzuaren urteko plana eta osasun, higiene eta segurtasun arauak betetzen direla zaintzea.
- d) Jantokian lan egiten duten gainerako langileei aginduak ematea.
- e) Jantokirako dirulaguntza duten ikasleak zerbitzua erabiltzen dutela gainbegiratzea eta kontrolatzea, eta informazio hori Hezkuntza Departamentura bidaltzea, hark emandako bitartekoen bidez.
- f) Zerbitzua behar bezala ematen dela gainbegiratzea, batez ere programatutako menuak eskaintzeari eta elikagaien ezaugarriei dagokienez.
- g) Inbentarioa egitea, eta antzemandako gorabeherak eta premiak jakinaraztea eskola jantokien arloan eskumena duen zerbitzuari, zerbitzu horrek emandako bitartekoen bidez.
- h) Hezkuntza administrazioak ezartzen duen beste edozein.

4. Jantokiko arduraduna elkarlanean arituko da zerbitzua ematen duenarekin aurreko eginkizunak behar bezala betetzeko.

5. Jantokiko arduradunak erabiltzaileekin bazkalduko du, eta zerbitzu hori doan erabiltzeko eskubidea izanen du.

15. artikulua. Eskualdeko eskola jantokietako administratzaileak.

1. Eskola kontseiluak, Hezkuntza Departamentuaren mendeko ikastetxeko langileen artetik

(irakasleak edo irakasle ez direnak), jantokiko administratzaile bat izendatuko du ikasturte baterako. Aurreko ikasturte batean aukeratutako pertsona bera izan daiteke, bai eta jantokiko arduraduna bera ere.

Boluntariorik ez badago, eskola kontseiluak berak aukeratuko du administratzailea.

2. Hauek dira jantokiko administratzailearen eginkizunak:

- a) Ordainketak agintzea eta ordainagiriak eskola kontseiluari ematea.
- b) Kobrantzak kudeatzea eta jantokiko kontuan sartzea.
- c) Kontabilitatea eramatea.
- d) Kontuak eskola kontseiluari aurkeztea.
- e) Hezkuntza administrazioak ezartzen duen beste edozein.

16. artikulua. Eskualdeko jantokietako arretako langileak.

1. Hezkuntza Departamentuaren mendeko irakasle zaintzaile boluntarioak:

Eskualdeko jantokietan irakasle zaintzaile boluntario bat egon daiteke. Izangai bat baino gehiago badago, eskola kontseiluak zehaztuko ditu irizpideak ikasturterako irakasle zaintzaile hori izendatzeko.

Jantokiko irakasle zaintzaile boluntarioari honako eginkizun hauek dagozkio bazkalorduan eta bazkaldu aurreko eta ondoko denbora librean:

- a) Jantoki zerbitzuaren hezkuntza arreta zaintzea.
- b) Ikasle bazkaltiarren portaera zuzena zaintzea.
- c) Jantokiko arduradunarekin elkarlanean aritzea eskola jantokiko zerbitzuaren urteko plana betetzeko.

2. Kontratuaren adjudikaziodunaren mendeko zaintzaileak:

Kontratuaren adjudikaziodunak behar diren zaintzaileak jarriko ditu, ikasturte bakoitzaren hasieran eskola jantokien arloan eskumena duen zuzendaritza nagusiaren ebazpen bidez zehazten diren ratioak kontuan hartuta.

Langile horiek bazkalorduan eta bazkaldu aurreko eta ondoko denbora librean emanen dituzte zerbitzuak.

Langile horien eginkizunak honako hauek izanen dira:

- a) Ikasle bazkaltiarrek gainbegiratzea eta zaintzea jantokian, bai eta jantokian sartu aurreko eta ondoko denboran ere.
- b) Beren kabuz moldatu ezin diren ikasleei laguntzea.
- c) Ikasle bazkaltiarren portaera zuzena zaintzea eta haien arteko gatazkak saihestea.
- d) Ikasleen portaera eta jokamolde egokia zaintzea jan bitartean, baita jantokiko tresneriaren erabilera eta kontserbazio egokia ere.
- e) Laguntasuna, erantzukizuna eta lankidetzatza sustatzea zenbait ekintzatan, hala nola ogia edo ura banatzean, mahaiak jarri eta jasotzean edo ikasle bazkaltiar gazteenak zaintzean.
- f) Bazkalorduan behar diren jarduerak egitea, ikasle bazkaltiarrek ohitura osasungarriak eta egokiak har ditzaten elikadurari, higienerari eta gizarte harremanei dagokienez.

- g) Elikagaiak banatzen laguntzea eta jakiak jaten direla zaintzea.
- h) Ikastetxeko jantokiko arduradunari jakinaraztea jantoki zerbitzuaren edozein gorabehera.
- i) Jantokiko arduradunarekin elkarlanean aritzea eskola jantokiko zerbitzuaren urteko plana betetzeko.
- j) Hezkuntza administrazioak ezartzen duen beste edozein.

3. Hezkuntza Departamentuaren mendeko hezkuntza laguntzako espezialistak:

Hezkuntza Bereziko ikastetxe publikoetan, Hezkuntza Departamentuaren mendeko hezkuntza laguntzako espezialistek arreta emanen dute jantoki zerbitzuan; beraz, enpresek ez dute zaintzailerik jarriko.

Inklusioari buruzko araudiaren arabera egitura espezifikokoak dituzten Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan, kontratuaren adjudikaziodunaren mendeko zaintzaileek arreta orokorra emanen dute jantoki zerbitzuan, eta Hezkuntza Departamentuaren mendeko hezkuntza laguntzako espezialistek hezkuntza premia bereziak dituzten ikasle bazkaltiarrei emanen diete arreta.

Hezkuntza laguntzako espezialistek inklusioan eskumena duen zuzendaritza nagusiak ezarritako eginkizunak beteko dituzte.

17. artikulua. Eskualdeko jantokietako langileen ordainsariak.

Irakasle zaintzaile boluntario, jantokiko arduradun edo/eta jantokiko administratzaile direnek eskubidea izanen dute Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean langile horientzat urtero ezartzen den diru saria jasotzeko.

18. artikulua. Eskola jantokietako langileen ikuskapena.

Eskola jantokien arloan eskumena duen zerbitzuak gainbegiratuko du arduradunek, administratzaileek eta borondatezko irakasle zaintzaileek beren eginkizunak betetzen dituztela, eta Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuari hautemandako gorabeheren berri ematen ahalko dio.

IV. KAPITULUA: Kudeaketa ekonomikoa

19. artikulua. Eskualdeko jantokien finantzaketa.

Eskualdeko jantokien finantzaketa Administrazioaren ekarpenen eta ikasle bazkaltiarren kuoten bidez egingen da.

20. artikulua. Zerbitzuaren kuotak.

1. Eskola kontseiluak zehaztuko ditu ikasleek ordaindu beharreko kuotak.
2. Hezkuntza Departamentuak ikasle bazkaltiarrek jantoki eta ikasturte bakoitzerako ordaindu beharreko gehieneko kuota ezarri ahalko du, eta, halakorik bada, gehieneko kuotaren eta zerbitzuaren kostuaren arteko aldea bere gain hartuko du.

21. artikulua. Ikasleen ordainketak eta ez-ordaintzeak.

1. Kuotak ordainagiria jaso ondoren ordainduko dira, eskola kontseiluak ezarritako epeetan eta moduan.
2. Ikasleek kuotak ordaintzen ez badituzte, jantokiko plaza galdu ahalko dute. Plaza kentzeko erabakia eskola kontseiluak hartuko du.
3. Eskola jantokien arloan eskumena duen zuzendaritza nagusiak ebazpen bidez zehaztuko du jantokirako laguntzak jasotzen dituzten ikasleek jantoki zerbitzura ez joateagatik ordaindu beharreko zenbatekoa.

22. artikulua. Zerbitzuaren kontabilitatea.

1. Ikastetxeek kontu propio bat izanen dute jantoki gastuetarako, funtzionamendu gastu orokorren kontutik aparte, zerbitzuaren funtzionamendutik eratorritako gastu eta diru-sarrerekin.
2. Administrazioaren ekarpenak ikastetxe bakoitzeko jantokiko kontuan sartuko dira zuzenean.
3. Jantokirako laguntzak jantokiko kontuan sartuko dira, eta laguntza horiek kontu horretan bakarrik erregistratu beharko dira.
4. Administrazioaileak aginduak ematen ahalko ditu jantokiko kontutik ordainketak egiteko, ikastetxeko zuzendaritzak oniritzia eman ondoren. Halaber, jantokiko gastuen ordainketa gauzatu du, gutxienez hiru hilean behin.
5. Urte bakoitzeko irailaren 30a baino lehen, jantokiaren administrazioaileak eskola jantokien arloan eskumena duen zerbitzuari bidaliko dio aurreko ikasturteko balantze ekonomikoaren aktaren kopia, eskola kontseiluak onetsi ondoren.
6. Jantokiaren ustiapen superabita, ahal dela, eskola jantokiko instalazioak, lanabesak eta tresneria hobetzeko erabiliko da, bai eta bazkaltiarren kuotak murrizteko ere.

III. TITULUA: Eskola jantoki arruntak

I. KAPITULUA: Eskola jantoki arrunten antolaketa eta funtzionamendua

23. artikulua. Eskola jantoki arrunten zerbitzua kudeatzea.

1. Eskola jantokia zerbitzu osagarria da, eta honako hauek biltzen ditu:
 - a) Janari zerbitzua, menuak programatu, prestatu eta banatu, eta baldintza eta kontrol higieniko-sanitarioak betetzen direla bermatzen duten jarduketa guztiak eginez.
 - b) Hezkuntza zaintza eta arreta, bai jan bitartean, bai jan aurretik eta ondotik, osasuna, elikadura ohiturak eta gizarte trebetasunak sustatuz, bai eta kulturarekin, kirolarekin eta aisiarekin lotutako ohiturak ere.
2. Ikastetxeko gurasoen elkarrekin kudeatuko du zerbitzua, edo, hala badagokio, guraso

elkarte hori sartuta dagoen federazioak, eta, oro har, zeharkako kudeaketa eginen da enpresa espezializatuen bidez.

3. Jantoki zerbitzua modalitate hauetakoren baten bidez emanen da:

- a) Ikastetxean bertan prestatutako janariak banatzea.
- b) Sukalde zentral batean edo hurbileko ikastetxe batean prestatu ondoren ikastetxera lerro beroan garraiatutako janariak banatzea.
- c) Sukalde zentral batean edo hurbileko ikastetxe batean prestatu ondoren ikastetxera lerro hotzean garraiatutako janariak banatzea.

II. KAPITULUA: Eskola jantoki arruntak baimentzea

24. artikulua. Baimentzeko prozedura.

1. Eskola jantokiaren funtzionamendurako baimen eskaera, ikastetxeko eskola kontseiluko buruak sinatuta, eskola jantokien arloan eskumena duen Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko zuzendaritza nagusira zuzenduko da. Eskaerarekin batera, eskola kontseiluak jantokiari buruz hartutako erabakiaren akta aurkeztuko da.

Halaber, proiektututako jantokiaren ezaugarri orokorrak deskribatzen dituen memoria labur bat erantsiko da, guraso elkarteko buruak sinatuta. Memoria horretan honako alderdi hauek aipatuko dira:

- a) Jantokirako eskatutako sailkapena eta funtzionamendu araubidea.
- b) Ikastetxearen planoak, eskola jantokiko gela eta zerbitzuetarako espazioen kokapena erakusten dutenak.
- c) Erabiltzaileen gutxi gorabeherako kopurua, edukiera eta, hala badagokio, bazkari txandak.
- d) Bazkaltzeko txandaren aurreko eta ondoko denborarako programatutako jarduerak.
- e) Jantokia finantzatzeko aurreikusitako sistema.

2. Baimena eman aurretik, ikastetxeko zuzendaritzari kontsulta egiten ahalko zaio, eta hezkuntza azpiegituren eta hezkuntza ikuskaritzaren arloan eskumena duten zerbitzuen aldeko txostena beharko da.

3. Eskola jantoki arrunt gisa jarduteko baimena lortzeko, jantoki horri alta eman beharko zaio Osasun Publikoaren Erregistroan.

4. Hezkuntza Departamentuak baimena ematen badu, aukera emanen du eskola jantokiak zehazten den modalitatean funtziona dezan. Hezkuntza Departamentuak baimena emanen du behar diren lokalak aldi baterako eta doan erabiltzeko.

25. artikulua. Funtsezko aldaketak, eta baimena errebokatzea.

1. Jantoki baten funtzionamendua baimendu ondoren, ez da beharrezkoa izanen eskaera urtero errepikatzea, funtsezko aldaketak gertatzen direnean izan ezik; kasu horretan, aldeztu aurretik jakinarazi beharko zaizkio eskola jantokien arloan eskumena duen Hezkuntza Departamentuko zuzendaritza nagusiarri.

Aldaketak aztertu ondoren, Departamentuak arrazoiak emanaz jakinaraziko du onesten edo ukatzen dituen.

2. Jantoki arrunt bati emandako baimena errebokatzen ahalko da, baldin eta baimena ematea eragin zuten inguruabarrak aldatzen badira eta aurreko apartatuaren arabera alde zuzenetik onartu ez badira.

26. artikulua. Jantoki arruntetako menuen tipologia.

1. Saiatuko da askotariko menu nutritiboa eskaintzen, adin talde bakoitzaren beharretara egokitua; erabiltzaile guztiek menu bera izan behar dute, salbuespenezko eta justifikatutako arrazoiengatik bestelako bat behar dutenek izan ezik. Elikadura osasuntsuagoa, jasangarriagoa eta inklusiboagoa sustatuko da, nutrizio kalitatea bultzatuz eta kontrolatuz, haurtzaroan eta nerabeztaroen gehiegizko pisua eta obesitatea prebenitu eta kontrolatzeko.

2. Elikagai jakin batzuei alergia edo intolerantzia dieten ikasleen kasuan, edo elikadura espezifikoak behar duten gaixotasun edo nahasmendu somatikoak dituzten ikasleen kasuan, zerbitzu emaitzak patologiekin bateragarriak diren menu espezifikoak eman beharko ditu, betiere guraso elkartearen aurrean egiaztatzen badira dagokion ziurtagiri mediko ofizialaren bidez.

3. Menu bereziak eskaini ahalko zaizkie erlijio, kultura eta etika arazoak direla-eta elikadura espezifikoak behar duten ikasleei, eskola jantokian gizarte inklusioa sustatzeko.

III. KAPITULUA: Eskumenak eta betebeharrak jantoki arruntetan

27. artikulua. Eskola kontseilua

Hauek dira ikastetxeko eskola kontseiluaren eginkizunak:

- a) Eskola jantokiaren antolaketa eta funtzionamendurako jarraibideak zehaztea, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan eta foru dekretu honetan xedatutakoaren arabera.
- b) Eskola jantokiko aurrekontuak, ordaindu beharreko kuotak eta urteko balantzea gainbegiratzea.
- c) Eskola jantokiko zerbitzuaren urteko plana onestea eta ebaluatzea, ikastetxearen urteko programazio orokorraren barruan.
- d) Hezkuntza administrazioak ezartzen duen beste edozein.

28. artikulua. Guraso elkarteak.

1. Ikastetxeko gurasoen elkarteari honako eginkizun hauek dagozkie:
 - a) Jantoki zerbitzua antolatzea.
 - b) Zuzendaritza taldearekin batera, eskola jantokiko zerbitzuaren urteko plana egitea, ikastetxearen urteko programazio orokorraren barruan.
 - c) Jantokian osasun, higiene eta segurtasun arauak betetzen direla zaintzea.
 - d) Jantokiko langileak gainbegiratzea eta horiei aginduak ematea.
 - e) Jantokirako dirulaguntza duten ikasleak zerbitzua erabiltzen dutela gainbegiratzea eta kontrolatzea, eta informazio hori Hezkuntza Departamentura bidaltzea, hark emandako bitartekoen bidez.
 - f) Zerbitzua behar bezala ematen dela gainbegiratzea, batez ere programatutako menuak eskaintzeari eta elikagaien ezaugarriei dagokienez.

- g) Eskola jantokiko aurrekontuak prestatzea, ordaindu beharreko kuotak eta urteko balantzea onestea, eta jantokiaren funtzionamendurako funtsak behar bezala administratzeko jarraibideak ematea, eskola kontseiluak gainbegiratuta.
 - h) Kontabilitatearen kudeaketa kontrolatzea.
 - i) Hezkuntza administrazioak ezartzen duen beste edozein.
2. Guraso elkarrekin aurreko eginkizunak esleitu ahalko dizkio zerbitzua ematen duen enpresa espezializatuari, betiere zuzendaritza eta ikuskapena mantenduz.

29. artikulua. Ikastetxearen zuzendaritza.

Hauek dira ikastetxeko zuzendaritzaren eginkizunak:

- a) Jantokiaren antolaketa eta funtzionamendua gainbegiratzea.
- b) Jantoki zerbitzua ematen den bitartean ikastetxeko bizikidetzara araudia betetzen dela gainbegiratzea, eta araudian ezarritako neurriak aplikatzea.
- c) Ikasleei ematen zaien hezkuntza arretaren kalitatea zaintzea.
- d) Guraso elkarrekin batera, eskola jantokiko zerbitzuaren urteko plana egitea, ikastetxearen urteko programazio orokorraren barruan.
- e) Ikasturte hasieran, eskola jantokiko zerbitzuaren urteko planaren eta horren arauen berri ematea familiei.
- f) Hezkuntza administrazioak ezartzen duen beste edozein.

30. artikulua. Jantoki arruntetako arretako langileak.

1. Jantoki arruntetako zaintzaileen zerbitzua guraso elkarrekin arduraren ardura izanen da, eta zuzenean eman ahalko du, batzarrean aukeratzen dituen gurasoen zerbitzuak erabiliz, edo zeharka, eskola jantokiko zerbitzua emateko kontratatutako enpresaren bitartez.

Nolanahi ere, zaintzaileen eginkizunak eta zaintzailea-bazkaltiarren ratioa eskualdeko jantokietarako ezarritakoak izanen dira gutxienez.

2. Inklusioari buruzko araudiaren arabera egitura espezifikoak dituzten Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan, kontratuaren adjudikaziodunaren mendeko zaintzaileek arreta orokorra emanen dute jantoki zerbitzuan, eta Hezkuntza Departamentuaren mendeko hezkuntza laguntzako espezialistek hezkuntza premia bereziak dituzten ikasle bazkaltiarrei emanen diete arreta.

Hezkuntza laguntzako espezialistek inklusioan eskumena duen zuzendaritza nagusiak ezarritako eginkizunak beteko dituzte.

IV. KAPITULUA: Kudeaketa ekonomikoa

31. artikulua. Jantoki arruntaren finantzaketa.

Jantoki arruntaren finantzaketa guraso elkarrekin kontura izanen da, eta gastua ikasle bazkaltiarren kuotekin eta, hala badagokio, guraso elkarrekin eta Administrazioaren

ekarpenekin estaliko da.

32. artikulua. Zerbitzuaren kuotak.

Guraso elkarteak izanen du ordaindu beharreko kuotak zehazteko eskumena.

33. artikulua. Ikasleen ordainketak eta ez-ordaintzeak.

1. Kuotak ordainagiria jaso ondoren ordainduko dira, guraso elkarteak ezarritako epeetan eta moduan.
2. Ikasleek kuotak ordaintzen ez badituzte, jantokiko plaza galdu ahalko dute. Plaza kentzeko erabakia guraso elkarteak hartuko du.
3. Eskola jantokien arloan eskumena duen zuzendaritza nagusiak ebazpen bidez zehaztuko du jantokirako laguntzak jasotzen dituzten ikasleek jantoki zerbitzura ez joateagatik ordaindu beharreko zenbatekoa.

Lehen xedapen gehigarria. Hezkuntza Departamentuari atxikitako haur eskoletako eskola jantokiak.

Hezkuntza Departamentuak departamentuari atxikitako haur eskoletako eskola jantokien kudeaketa arautuko du, kudeaketaren berezitasunak aztertu eta ebaluatu ondoren.

Bigarren xedapen gehigarria. Hezkuntza Departamentuaren lankidetzak eskola jantoki arruntekin.

Hezkuntza Departamentua lankidetzan arituko da jantoki arrunt baimenduak dituzten ikastetxeetako zuzendaritzekin eta guraso elkarteekin, segurtasun eta higiene gidak, elikadura ohiturak, menu osasungarriak eta eskola jantokien kalitatea hobetzeko interesgarria izan daitekeen beste edozein gai zehazteko.

Hirugarren xedapen gehigarria. Eskola jantokiko zerbitzuaren urteko plana.

Foru dekretu honen 4. artikuluan aipatzen den eskola jantokiko zerbitzuaren urteko plana 2025-2026 ikasturtea hasi baino lehen onetsi beharko da.

Laugarren xedapen gehigarria. Hitzarmenak eskola jantokiaren kudeaketa bere gain hartu nahi duten toki erakundeekin.

Foru dekretu honen 9.5 artikuluan aipatzen den eskola jantokiko zerbitzuaren kudeaketa beren gain hartu nahi duten toki erakundeekin hitzarmenak formalizatu ahalko dira, 2025-2026 ikasturtetik aurrera ondorioak izan ditzaten, ikasturte hori barne.

Bosgarren xedapen gehigarria. Eskola jantokiko zerbitzua salbuespen gisa etetea garraiatutako ikasle jakin batzuentzat.

Salbuespen gisa, jantoki zerbitzua emateari utzi ahalko zaio, unean-unean, garraiatutako ikasle jakin batzuei, baldin eta, eskola garraioko zerbitzuaren antolaketa premiak direla-eta, ibilbidea jantoki zerbitzurik gabe hasi behar badute.

Xedapen iragankor bakarra. Nafarroako Gobernuaren titulartasuneko jantoki arruntak

banku kontuak ezereztea.

Nafarroako Gobernuaren titulartasuneko jantoki arrunten banku kontuak, foru dekretu hau indarrean sartzen denean indarrean daudenak, gehienez ere sei hilabeteko epean ezereztuko dira, dekretua indarrean jartzen denetik aurrera. Horretarako, gaur egun Nafarroako Gobernuaren titulartasuneko jantokiko banku kontuak dituzten ikastetxeetako guraso elkarteek banku kontu berriak eman beharko dizkiote Hezkuntza Departamentuari, kontu horietan dauden zenbatekoak transferitu daitezten.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Indargabetutako arauak.

Indargabetuta geratzen dira honako arau hauek:

- 246/1991 Foru Dekretua, uztailaren 24koa, Nafarroako unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako eskola jantokiak derrigorrezko hezkuntza mailetan arautzen dituena.
- Hezkuntza eta Kulturako kontseilariaren maiatzaren 11ko 186/1993 Foru Agindua, uztailaren 24ko 246/1991 Foru Dekretuan xedatutakoa garatzen duena (Nafarroako unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako eskola jantokiak arautu zituen foru dekretu horrek).
- Nafarroako Foru Komunitatean eskola garraioaren antolamendua eta funtzionamendua eta jantokirako banakako laguntzak arautzen dituen Hezkuntzako kontseilariaren maiatzaren 11ko 35/2022 Foru Aginduaren VIII. kapitulua ("Jantokirako banakako laguntzak").
- Eta foru dekretu honi aurka egiten dioten xedapen guztiak, maila berekoak edo txikiagoak.

Azken xedapenetako lehena. Nafarroako Foru Komunitatean eskola garraioaren antolamendua eta funtzionamendua eta jantokirako banakako laguntzak arautzen dituen Hezkuntzako kontseilariaren maiatzaren 11ko 35/2022 Foru Agindua aldatzea.

1. Nafarroako Foru Komunitatean eskola garraioaren antolamendua eta funtzionamendua eta jantokirako banakako laguntzak arautzen dituen Hezkuntzako kontseilariaren maiatzaren 11ko 35/2022 Foru Aginduaren titulua aldatzen da, honela:

“35/2022 Foru Agindua, maiatzaren 11koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitatean eskola garraioaren antolamendua eta funtzionamendua arautzen dituena.”

2. Foru agindu horren 12. artikulua aldatzen da, honela:

“12. artikulua. Zaintza partekatuko egoeran dauden ikasleak.

Zaintza partekatuko egoeran dauden ikasleek, ohiko bizilekuaren arabera esleitua badute eskola garraio kolektiboko tokia, laguntza indibidualizatua eskatzen ahalko dute beste gurasoaren etxebizitzan bizi diren egunetarako.

Halaber, bigarren gurasoaren bizilekuari dagokionez, eskola garraio kolektibo antolatua edo laguntza indibidualizatua izateko eskubidea izanen du, baldin eta, distantziaren baldintza betez gero, zaintza eta jagoletza partekatuko egoera bat badago eta adingabeak bizilekua aldatzen badu, guraso bakoitzarekin dagoen aldiaren arabera.”

Azken xedapenetako bigarrena. Erregelamendu bidez garatzea.

Ahalmena ematen zaio Hezkuntza Departamentuko titularrari foru dekretu honetan ezarritakoa garatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

Azken xedapenetako hirugarrena. Indarrean sartzeara.

Foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.